



# MEMORIA 2017

---

DONOSTIA KULTURAKO  
**BALANTZEA**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
**kultura**



# DONOSTIA KULTURAKO BALANTZEA



Donostia Kulturaren hileroko agenda.

eskaintzaren parte garrantzitsu bat, bai gure erakundeak hartarako darabiltzan baliabideei esker eta bai hartzaileek oro har izan duten harrera onari esker. Kultur zerbitzuez ari gara, herritarren eta kultur eragileen parte hartzea berekin duten jarduera guztiez -ez bakarrik erakusketa eta ikuskizunez-.

Izan ere, Donostia Kultura etengabe ari da ugaltzen **parte hartzeko bideak**, kultur eragileei ematen dien laguntza eta sareko lana, zeina, aurreratu genuenez, nabarmendu egingo baita 2018an, 2017an ere nabarmendu zen bezala. Parte hartzeko bideok ulertzeko, eman ditzagun adibide batzuk. Honako hauetaz ari gara: urtean zehar emandako 600dik gora ikastaro, liburutegietako 461.000 mailegu baino gehiago, Egia eta Intxaurrendoko Musikagela proba-saioetarako gelak, Victoria Eugenia Antzokiko Master Classak, 20 lehiaketa baino gehiago eta horietan emandako sariak, Olatu Talkan ikusgai jarritako 174 jarduera amateurrak, Larrotxene Bideok eskaintako prestakuntza, Casares Irratiaren zerbitzua, kultur eta aisialdi-arloari emandako diru-laguntzak, Danborradetan, Inauterietako konpartsetan, Santo Tomas eguneko postuetan eta gisa horretako jaietan izandako partaide kopuru handiak -ikus-entzuleenak ez ezik-.

Ildo hori, **herritarrek egiten duten kulturari laguntzea**, ezinbestekoa da Donostia Kulturaren kudeaketan (baliabide teknikoak eta pertsonalarenak, arte-zuzendaritza, kolektiboen eta profesionalen koordinazioa, laguntza ekonomikoa, diru-laguntzak, produkzioa, eta abar, kasuan kasukoa), eta, ezbairik gabe, gure lorpen handienetako bat, harrotzen gaituena.

## NAZIOARTERAKO ERAKUSLEIHOA

Beste ildo estrategiko batean ere kokatu zen Donostia Kultura 2017. urtean, hots, erakunde bera nazioarteratzen. Horrek eragin handia du euskal sorkuntzarentzat, nazioartean erakusleihoa irekitzea esan nahi duen aldetik.

Donostia Kulturak bere gain hartu zuen 2016ko Europako Kultur Hiriburutzak utzitako ondarearen parte bat: 2017an asko hazi diren programa batzuk. Esate baterako, **Beste Hitzak / Other Words**, hizkuntza gutxituetako

## URTE ONA DONOSTIA KULTURARENTZAT, DSS2016EUK UTZITAKO "BESTONDOA" ETA GERO

\* **Kultur etxeek**, Donostiako auzoetan sakabanaturik, **1.383.235 bisita izan zituzten 2017an**; gero eta bisita gehiago dituzte, eta hiriaren kultur arnasbidea dira.

\* Donostia Kultura sendotu egin da elkarre, kultur eragile eta zaleentzako sarbide gisa, **zerbitzu sorta zabal baten** bitartez.

\* Dagoeneko **20 kultur atal** biltzen ditu DK marka orokorrak.


\* **Donostia Kultura Klubak 100.000 bazkideen** langa gainditu du.

Donostia Kulturak bere gain hartu du gune, zerbitzu eta zenbait programa-arloren sare zabal bat kudeatzeko erantzukizuna, horien bidez **mundu guztiak izan dezan kulturarako irispidea**.

Ezin konta ahala **jarduera eta ikuskizun sustatzen ditu -2017an, 7.000 baino gehiago-**, eta horien berri emango dugu memoria honetan. Gainera, Donostia Kulturak markak hautsi zituen programaturiko jardueretan parte hartu zuten lagunak kopuruei dagokienez. Gehikuntza hori programazioaren arlo guztietan gertatu zen: Arte Eszenikoak, Musika, Zinea, Festak eta Jaialdiak; izan ere, gutxitze bakarrak liburutegien erabiltzaileen kopuruetan eta San Telmo Museoaren bisitarien kopuruan izan ziren. Lehen kasuan, hori bat dator Europar irakurketa publikoak duen gutxitzearekin; eta bigarrenetan, berriz, bat dator erakusketa-programazioa Europako Kultura Hiriburutzaren ondotik atzera lehengora etortzearekin. Eta nahiz eta **DK AGENDA**ren bidez ezagutzen gaituzten **Donostiako** eta inguruetako **kultur motor baitezpadako** gisa, 2017an nabarmendu egin zen gure



# DONOSTIA KULTURAKO BALANTZEA



**60.027**  
emakumezkoak





**40.434**  
gizonezkoak



**78.040 / 77,68 %**  
donostiarrak

**GUZTIRA: 100.461**



**22.421 / 22,32 %**  
ez donostiarrak

idazleen arteko trukeak; **Kimu**, arte eszenikoetan prestatzeko; bai eta **Dramaturgia Berriak** programa ere, idazketa dramatiko berriak bultzatzeko.

Bestalde, nazioarteko sare batzuk indartu zituen, hala nola dantzaren inguruko **Ballet T** programa, Malandain Ballet Biarritzekin batera, eta antzerkirako **Eszena T** programa, Scène Nationale du Sud-Aquitainekin batera.

Gainera, Donostia nazioartean ezagutarazten lagundu zuen hainbat ekitaldiren bidez: Heineken Jazzaldia, dFERIA, Aste Nagusia eta Kontxako Banderako Estropadak edo San Telmo Museoko formatu handiko erakusketak.

## GIZARTE-PROGRAMA

Nazioarteratzearekin batera, Donostia Kulturak baditu beste zenbait plan zeharkako ere, hasi **Euskara erabiltzeko plan berezitik** eta **Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako I. Plana** ezartzeraino.

Azken horri dagokionez, 2017an zenbait gauza lortu ziren, hala nola Kontxako Banderaren lehen hamar urteak bete izana emakumeen sailean, gizonen eta emakumeen estropaden sarietan berdintasuna ezartzea, Santo Tomas egunean emakumeen herrikirolak bultzatzea, edo Heineken Jazzaldiko 13 kontzertutan emakumeak izatea buru... Horiez gainera, etengabeko lana egin zen ohiko programazioan emakumeek egindako artelanak ikusgai eta ikusgarri izan zitezten. Ahaztu gabe, noski, eraso sexistei aurrea hartzeko eta arbuiatzeko egindako lan etengabea, Festak unitatearen esku.

## DONOSTIA KULTURA TXARTELA

Urte amaieran **Donostia Kulturaren 100.000 txartelen langa gainditu zen**; 5.000 bazkide berri gehiago, gutxi gorabehera, eta **Kultura Klubak** tamaina handia hartu du dagoeneko. Kopuru biribila da hori, Donostia Kulturak herritarren artean izan duen harrera ona eta hurbiltasuna adierazten dizkiguna, eta, bistan denez, oso harro gaude horregatik. Hala ere, konturatzen

gara kopuru hori gehiago zehaztu behar dela (\*), horretarako tresna analitikoak erabiliz. Nolanahi ere, gure ustez bazkide aktiboak dira % 70 baino gehiago, liburutegi-zerbitzuen erabilera, ohiko deskontuen onuradunek edo Donostia Kulturako ikastaroetako partaideez ditugun neurtzeko bideen arabera.

Interesgarria da ikustea nola banatzen diren Donostia Kulturaren zerbitzuen eta programazioaren kontsumitzaileak. Esate baterako, **% 60 emakumeak dira**, eta gehienak Amarakoak (% 19), ondoren Grosekoak (% 14), Antigua-Ibaetakoak (% 11) eta Intxaurrendokoak (% 11). Gainera, % 78 donostiarrak dira, eta % 22, berriz, Donostialdekoak gehienak. Batez besteko adinari dagokionez, % 37k 45 eta 64 urte artean dituzte, eta % 32 20 eta 44 urteren artean dabilta.

Azkenik, esan dezagun gero eta gehiago direla urtez urte kultura klub honen online sailean izena ematen duten bazkideak, 17.000 lagun erregistratuta egoteraino, bide horrek eskaintzen dituen abantailarik gehienez baliatzeko.



# DONOSTIA KULTURAKO **BALANTZEA**



Aste Nagusiko kontzertua Saguesen.



Santo Tomas Feria.

## FESTAK

**Parte hartzeko festak dira batez ere**, eta kudeaketak oso datu esanguratsuak eskaintzen dizkigu. Esate baterako, 75.000 lagunek parte hartu zutela Santo Tomasen, 25.000k Donostiako Danborradan, eta 20.000k 2017ko Kontxako Banderaren Estropadetan.

Nolanahi ere, **Aste Nagusia** nabarmendu zen, **aurreko urteetan baino jende gehiago bildu baitzuen, 1.140.000 lagun** (% 7,9ko gehikuntza) programaturiko 460 jardueretara (% 7 gehiago). Besteak beste, Su Festen Nazioarteko 54. Lehiaketak 500.000 lagun bildu zituen gutxi gorabehera. Gainera, Aste Nagusia izan zen 2017ko berrikuntzetako bat, hots, deszentralizazioa, jaiak auzoetara hedatu baitziren; Amara, Gros eta Antiguara, besteak beste.

Azpirarratzekoa, halaber, **berdintasunaren alde** egindako lana: emakumeentzako Kontxako Banderak hamar urte bete izana ospatu zen, eta gizonen eta emakumeen sariak berdintzea; emakumeek parte hartu zuten, halaber, herri-kirolen erakustaldian, Santo Tomas eguneko azokan.

Eta bi xehetasun, huskeria ez direnak: batetik, jai guneetarako **irisgarritasuna indartzeko** egindako lana, eta bestetik, “alkoholik ez adingabeentzat” eta sexu-erasoen kontrako prebentzioan eta arbuioan festetan egindako lana.

Aipatzekoa, azkenik, **Easo Abesbatzarekiko harremana** sendotu izana, zeina 2017ko jaietako protagonista bat izan baitzen.

## LIBURUTEGIAK

**901.785 lagunek erabili zituzten** Donostiako Liburutegi Sarearen zerbitzuak (irakurketa publikorako 18 gunek osatua). Ohiko erabiltzaile kopuruari eutsi zitzaion (zertxobait gutxitu zen, Europako beste aldeetan gertatutakoaren antzera. Badirudi joera hori dagoela kultura eta aisialdiaren kontsumoan).


**Maileguen kopurua 461.000koa izan zen**; horietatik, mailegu digitalak 5.828 izan ziren. 32.106 erosketa egin ziren, **544.502 izenburuko** funtsari erantsi zitzaizkionak. Horietatik, 87.760 izenburu Funts Historikokoak dira, Euskadiko lehen udal liburutegietako batek katalogatuak -1874an fundatua izaki-.

Donostiako liburutegiek 2017an egindako lanean -997 jarduera eta 26.806 lagun jarduerotan- **irakurketa**



© Gorka Estrada

Liburutegi Nagusia.



© Gorka Estrada

Kontxako arkupeetan aurtengo udan lehen aldiz martxan jarritako Eguzkiteketa.

**publikoa bultzatzeko** martxan jarritako ildo guztiak nabarmentzen dira ezbairik gabe, eta batez ere gazte eta haurrei zuzendutakoak. Programa aipagarrien artean, honako hauek: **Liburu Baby Kluba**, **Irakurketa digitalerako kluba**, **ipuinaren ordua**, **Bularretik Mintzora**, **Haur literatura 0-8** lantegia, **ipuin-kontalarien III. Maratoia**, **gazteentzako poesia-lehiaketa**, edo **Uhartearen Altxorra** erakusketa.

**Wikiliburutegi**akekin, liburutegi-zerbitzuak eduki digitalen sorkuntzari ekin zion, hots, haur literaturari eta euskal idazleei buruzko artikuluak sortzeari.

Azkenik, azpimarratzekoa da 2017an gune berri bat inauguratu genuela: **Eguzkiteketa**, Kontxako Pasealekuan, zeinak harrera bikaina izan baitzuen. Urgulleko Liburutegia bezala (Damen Bateria), urte-sasoi batzuetarako liburutegia izango da, herritarrak irakurketara hurbiltzeko aisialdian.

## SAN TELMO MUSEOA

**136.000 bisita izan zituen San Telmo Museoa**, eta hori hazkunde handia da 2015arekin alderatuta (baina baita zertxobait gutxitzea ere 2016koen aldean, urte horretan Museoa

Europako Kultura Hiriburutzaren erdiguneetako bat izan baitzen). Nabarmenena erakusketen programazioa eta erakusketa iraunkorreko berritasunak izan baziren ere, azpimarratzekoa da bi argitalpen-ildo berri jarri zirela martxan: **Bildumak** eta **Erronkak**. Bai eta haur eta familientzako aisialdiaren ildoari **Ipuin ibiltaria** eta **Mara Mara** jarduerak gehitzea ere.

Aipatu beharreko beste berri on bat: 2017an hobeto banatu ahal izan ziren urte osoan zehar Urgulleko Motako Gazteluko **Donostiari begira** erakusketarako bisitak, eta 177.000 bisita izan ziren.

Hala, bada, **313.000** izan ziren **San Telmo Museoa** kudeatzen dituen guneetan jasotako bisitak.




© Oscar Moreno

Espazioaren barrea (Guernica).



# DONOSTIA KULTURAKO BALANTZEA



© Lorena Otero

Bidehuts 10 urte kontzertua.



Errementari filmak irabazi zuen Fantasiako eta Beldurrezko Zine Astea.

## KULTUR EKINTZA

Auzotarrak harro daude Donostiako kultur etxeez, eta, oro har, donostiar guztiek jotzen dute haietara, kultur etxe bakoitzak duen espezializazio-esparruak erakarrita.

Kultur Etxeetan ere asko ugaltu ziren bisitak 2017an: **1.383.235 bisita**, hots, % 8 gehiago. Gainera, **6.688 jarduera** egin ziren, eta 352.040 lagunek hartu zuten parte haietan. Ikastaroak ere, harrera onena duten eskaintzetako bat, gehiago izan ziren, eta **10.378 lagunek** eman zuten izena kanpainako **556 ikastaroetan**. Horrek esan nahi du % 21eko hazkundea izan zuela eskaintzak.

Azpimarratzekoa, halaber, **Musikagelaren** eginkizuna. Zerbitzu horrek proba-saioetarako aretoak eskaintzen dizkie musika-taldee, hala Egian nola Intxaurren; eta 2017an aholkularitza-zerbitzua eta maketak grabatzeko ekipamenduen alokairu-zerbitzua gehitu zitzaizkion. Hor ditugu **Larrotxene Bideo** ikus-entzunezkoetan eta **Casares Irratiak** audioaren arloan eskaintzako zerbitzu espezializatuak ere.

Azpimarratzekoa, halaber, kultur etxeetako **aldi baterako erakusketetan 110.000 bisitaritik** gora izan direla.

## PROGRAMAZIOA

### Musika

Fermin Muguruza musikariak jaso zuen 2017ko **Adarra Saria**. Urte horretan, 70 kontzertu izan genituen, Victoria Eugenia Antzokikoak (46), Antzoki Zaharrekoak (8) eta Kursaal Eszenaren programazioan sartutakoak (16) batuta; eta kontzertuetan 25.000 ikus-entzule izan ziren. Horiei gehitu behar litzaizkieke **dKLUBA** zuzeneko musikaren programako 64 kontzertuetan izandako 17.467 lagunak. Nabarmenezkoa, programa horretan, Intxaurren Kultur Etxearen eskaintza, emanaldi askotako sarriak agortu baitzituen. Hala, kultur etxeetako kontzertuetan 31.881 lagun izan zirenez, esan dezakegu **231.381 lagun bildu zirela Donostia Kulturaren kontzertuetara**. Hor sartzen dira Heineken Jazzaldia eta beste zenbait ekitaldi ere (Musikaren eguna, Glad is the Day, eta abar).

### Zinea eta ikus-entzunezkoak

41.546 lagun izan ziren Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean programaturiko 142 saioetan. Bi jaialdi handienak nabarmendu ziren: Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta



Bebe.

Giza Eskubideen Zinemaldia, zeinetan 10.000 ikus-entzule izan baitziren bakoitzean. Erabat sendotuta dago, halaber, euskarazko zinemaren **Tinko** programa, ikastetxeei zuzendua, zeinean 7.021 lagunek hartu baitzuten parte. Eta **Larrotxene Bideo**, 3.080 lagun hartu baitzituen bere lanegietan. Kultur etxeak batuta, esan dezakegu **51.612 ikus-entzule** izan zirela arlo honetan.



© Lolo Vasco

52 Heineken Jazzaldia.

## Arte Eszenikoak

**97.070 lagun izan ziren Antzerki eta Dantza ikuskizunetan** 2017an, Donostia Kulturaren lau gune eszenikoetakoak batuta. 2017an, bi ospakizun gailendu ziren: **Alicia Amatriain: Donostia bihotzean** gala eta **Aukeraren 20. urteurrena. Francoren bilobari gutuna** antzezlanak irabazi zuen euskarazko antzerkiarentzako **Donostia Antzerki Saria**. Handia izan zen **Eskolatik antzerkira** eskola-programak izandako harrera ere, 8.355 ikus-entzule izan baitzituen. Eta **Poltsiko Antzerkian**, berriz, formatu txikiko 29 ikuskizun izan genituen, eta 2.700 lagun izan ziren haietan. **Kale-antzerkiko** 48 funtzioetan, berriz, 12.000 lagun. Horiez gainera, hor ditugu **dFERIA** jaialdia eta **Ballet T** eta **Eszena T** programak, biak ere hazkunde nabarmena izan zutenak.

## JAIALDIAK ETA PROGRAMAK

Herritarrek parte hartzeko jaialdiak, **Olatu Talkak**, 33.000 lagun bildu zituen 174 jardueratan, zeinetan 2.000 eragilek hartu baitzuten parte; gehienak, kultur elkarteak. Urteko literatur hitzordu behinenarentzat, **Literaktumentzat**, 2017a hazkunde-urtea izan zen, hala programazioan nola programa berriak **-Literaktum txikia-** sortzeari dagokionez. Jaialdia datak aldatu eta azaroan egin zen. **Glad is the Day** jaialdiari dagokionez **-DSS2016EUK** utzitako ondarearen parte bat-, abuztuan egin zen, eta 16 musika-taldek jardun zuten.

Donostia Kulturaren musika-jaialdi nagusiak, **Heineken Jazzaldia**, **156.000 ikus-entzule bildu zituen** 2017ko edizioan, zeinean Alderdi Ederreko lorategiari berriro erabili

baitziren jaialdiaren agertoki gisa.

**Txikijazz** programa dagoeneko sendoaz gainera, ikus-entzunezko proiektu handi bat eskaini zuen, **Poem of a Cell**, Stefan Winter soinu-artistarena. Guztira, 105 emanaldi 17 agertokitan.

## Giza Eskubideen Zinemaldiak

Deepa Mehat zinegile hinduari eman zion sari berezia, eta **Errementari** euskal produkzioak arrakasta izan zuen **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean** aurkeztu zen unetik.

**dFERIA**k, 30 ikuskizun eta 11 agertoki (Kutxa Kultur Tabakalera gune berri gisa eta Antzoki Zaharra SGAE gune gisa estreinatu zirelarik), 13.000 ikus-entzule bildu zituen lau egunetan Arte Eszenikoen FERIA horretara. 423 profesional akreditatu



© Bostok photo

Olatu Talka jaialdia.



© Gorka Bravo

Alicia bihotzean gala.

ziren, eta 5.113 lagunek parte hartu zuten jarduera paraleloetan. 2017an, Dferia Abroad programa bultzatu zen, Donostiako jaialdia nazioartean kokatzeko eta hartara euskal konpainien bultzagarri izan dadin.

## EKITALDI ETA EMANKIZUNEN PRODUKZIOA

Programazio horren guztiaren atzean produkzio talde tekniko osoa dago. 2017an **750 produkzio** egin zituen, hots, aipaturiko jaialdi guztiak eta ohiko programazioa, eta gainera Kursaal Eszenako eta Musika Hamabostaldiko kontzertuak. Ekitaldiei dagokienez, talde horri dagozkio **Konstituzio plazaren 200. urteurrena** eta **Orfeo Donostiarraren 120. urteurrena**, Alicia Amatriaini

**egindako omenaldia** eta **Donostiako Urrezko Danborra** izendatzea.

## IKUS-ENTZULE BIRTUALAK

Donostia Kulturaren web orriak, ez dezagun ahaztu, 20 marka biltzen ditu bere baitan (\*\*), eta 2017an **bi milioi bisita** baino gehiago izan ziren (2.432.798), aurreko urtean baino % 10 gehiago. Nabarmentzekoak sarrerak saltzeko orrialdearen hazkundea (% 49), dklbarena (%36) eta Victoria Eugenia Antzokiarena (% 18).

2017an, gainera, **Aste nagusirako web berezi bat** sortu zen, eta lehen astean 100.000 bista izan zituen. Gairik kontsultatuenei dagokienez, honako hauek dira, eta ordena honetan: kultur agenda, liburuak mailegatzeko

katalogoa, Donostiako Aste Nagusia, San Telmo Museoaren programazioa eta Heineken Jazzaldia.

Gainera, Donostia Kultura **117.375 jarraitzaile izatera iritsi zen sare sozial nagusietan**, hots, % 15eko gehikuntza izan zuen. Amaitzeko, goraiatzekoa da **Casares Irratiak** -udal irrati- egindako kultur dibulgazio-lana.



**117.375  
jarraitzaile  
SARE SOZIALETAN**

(\*) Aldika galbahea pasatzen bada ere, baliteke zenbaki horretan akatsen bat egotea, direla galdutako edo erabili gabeko txartelak, direla noizbehinkako bisitariak, heriotzak, eta abar.

(\*\*) Donostia Kultura markak: San Telmo Museoa, Heineken Jazzaldia, Victoria Eugenia Antzokia, Olatu Talka, Antzoki Zaharra, dKLUBA, Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dFERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Poltsiko Antzerkia, Literaktum, Casares Irratia, Ballet T, Escena T, Beste Hitzak&Other Words, Txikijazz, Eskolatik Atzerkira, Larrotxene Bideo, Musikagela, Adarra Saria, Eguzkiteka, KIMU eta horiez gainera, kultur etxeak eta Donostiako jai-ekitaldien izenak.